



ESKOLA KIROLEKO HARMAILETAN ERRESPECTUA SUSTATZEKO PROTOKOLOA

1. PARTIDA EDO LEHIAKETAREN AURRETIK (PREBENTZIO NEURRIAK)

- Lehiaketetako epaileek errespetuaren aldeko mezua eramango dituzte elastiko edo petoetan, zeinak Arabako Foru Aldundiak emango baititu.
- Arbitroak esleitzen dituzten erakundeek (federazioak edo tokiko taldeak) ziurtatu beharko dute lehiaketetako epaileek badutela honako hauen berri:
 - o Dagokion kategoriara egokitutako joko arauak eta arbitraje arauak.
 - o Protokolo hau.
- Lehiaketetan parte hartzen duten kirol erakundeek honako hauei eman beharko diete protokoloaren berri, lehiaketak hasi baino lehen:
 - o Taldeetako kide guztiei.
 - o Kirolarien senideei.
- Taldeek familien ordezkari bat izateko aukera izango dute, beren taldeko ikusleen portaera ona bultzatzeko. * *Ikus dokumentuaren 4.1 puntua.*
- Kirol legea sustatzeko ekintzak egin beharko dira, kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren araudi espezifikoak jasotzen dituenak, hala badagokio.
- Parte hartzen duten kirol erakundeek, halaber, kirol legea sustatzeko egokitzat jotzen duten beste edozein neurri ezarri ahal izango dute. Beste erakunde bateko taldeek parte hartzen badute, haien oniritzia beharko dute.

2. PARTIDAN EDO LEHIAKETAN ZEHAR. JARDUNBIDEAK.

Baldin partida edo lehiaketaren bat abian denean **ikusleren batek** edozein parte hartzailearen aurka (epaileak, teknikariak, kirolariak, etab.) edo beste ikusleren baten aurka egindako errespetu faltaren bat edo hitzeko indarkeria hautematen bada, bi jardunbide hauetakoren bat hartu beharko da, kasuaren arabera:

2.1 1. JARDUNBIDEA: OHARTARAZPENA

2.1.1 NOIZ:

Protesta, keinu eta/edo iruzkin desagokiak egin baditu edo behin eta berriz egin baditu.



2.1.2 ZER:

Epaileak partida edo lehiaketa geldiaraziko du eta jazoeraren berri emango dio protesta edo iruzkin desegokiak edo halakoak behin eta berriro egin dituzten ikusleen taldeko entrenatzaileari. Entrenatzaileak, era berean, gertakariaren egileei ohartarazi beharko die halakoak egiteari utz diezaioten, eta, hala egin ezean, "2. jardunbidea" aktibatuko da; alegia, instalaziotik irteten ez badira, bertan behera utziko da lehiaketa edo partida.

Lehiaketa ez da berriz hasiko entrenatzaileak dagokion ohartarazpena egin eta partida geldiaraztea eragin duen egoera konpondu arte. Bestela, lehiaketa amaitutzat joko da.

2.1.3 NORK:

Epaile lanak egiten dituenaren erantzukizuna da protokoloa aplikatzea.

Nolanahi ere, erakunde parte hartzaileetako honako pertsona hauek eskatu ahal izango diote epaileari protokolo honetan ezarritako jardunbide neurriak aplikatzeko:

- Legezko ordezkariak
- Kirol koordinatzaileak
- Adingabeak babesteko ordezkariak (Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren Lege Organikoa)
- Taldeko familien ordezkariak
- Lehiaketan parte hartzen duten kirolarien edo taldeen entrenatzaileek edo ordezkariak.

Beti ere, pertsona horiek alta emanda egon behar dira eskola kiroleko programan dagokien egoeran, eta beren burua identifikatu behar dute eta lankidetzan aritu epailearekin, neurriak ezartzeko orduan.

Halaber, lehiaketa antolatzen duen federazioak ere, proba edo lehiaketa zuzentzen duen pertsonaren, federazioko ordezkari baten edo erakunde laguntzaileko babes ordezkariaren bidez, eskatu ahal izango dio epaileari protokoloa aplikatzeko.

Entrenatzaileak bere taldeko ikusleei ohartarazpena egin behar dien egoera guztietan, hark zuzenean egin ahal izango du komunikazioa, edo familien ordezkariaren bidez, edo atal honetan jasotako beste edozein eragileren bidez.

2.2 2. JARDUNBIDEA: INSTALAZIOTIK IRTETEA EDO PARTIDA BERTAN BEHERA UZTEA

2.2.1 NOIZ:

- a. "1. jardunbidea" gauzatu eta lehiaketari berrekin ondoren, protesta, keinu zein iruzkin desegokiak egiten jarraitzen badute.
- b. Egoera larriak edo oso larriak gertatzen badira, hala nola mehatxuak, larderia, irainak eta laidoak, baita adierazpen arrazistak, xenofoboak, sexistak edo homofoboak ere (aldez aurretik "1. jardunbidea" gauzatu den alde batera utzita).

2.2.2 ZER:



Epaileak partida aldi baterako etengo du, eta kasuan kasuko entrenatzaileari edo entrenatzaileei eskatuko die gertakariaren egileei jakinarazteko instalaziotik beren borondatez irteten ez badira partida bertan behera utziko dela. Bi aukera:

- c. Gertakaria eragin du(t)en pertsona(k) instalaziotik irteten bad(ir)a, lehiaketari berriz ekingo zaio.
- d. Instalaziotik irteten ez bad(ir)a, partida edo lehiaketa amaitutzat joko da.
**Epaileak ezingo ditu instalaziotik kanporatu gertakariaren erantzuleak; beren borondatez irteteko eskatuko die.*

**Gertaeren larritasunagatik egokituz jotzen bada, epailea edo protokoloaren 2.1.3. atalean aipatzen den edozein pertsona harremanetan jarri ahal izango da udaltzaingoarekin edo Ertzaintzarekin, zuzenean edo instalazioaren arduradunen bitartez.*

2.2.3 NORR:

"1. jardunbidean" bezala (2.1.3. atala).

3. LEHIAKETAREN ONDOREN. GORABEHERAK JASOTZEA

3.1 EPAILEAK

Partidan edo lehiaketan aipatutako jardunbideren bat gauzatu behar izan bada, edo partida edo lehiaketaren aurretik, bitartean edo ondoren gorabeherarik izan bada, epaileak lehiaketaren aktan jasoko ditu izandako gorabeherak, Diziplina edo Lehiaketa Batzordeak dagozkion neurriak har ditzan.

Lehiaketaren akta itxi bada, epaileak, aktarekin batera, txosten bat aurkeztu beharko du, aktan jaso ez diren gorabeherak jasotzen dituen, edo lehendik dagoena osatzen duena.

3.2 KIROL FEDERAZIOAK

Kirol federazioak gertatutakoaren berri eman beharko die eta epaileak egindako akta edo txostena bidali, honako hauei:

- Federazioko bertako adingabeak babesteko ordezkariari.
- Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari.
- Partida edo lehiaketa horretan parte hartu duten kirol erakundeei.
- Instalazioaren erakunde titularri, lehiaketaren parte hartzaileetako bat ez denean.

Era berean, lehiaketa batzordeak lehen auzialdian proposatzen dituen epaiak (aldekoak zein aurkakoak) ere jakinarazi beharko dizkie kirol federazioak pertsona eta erakunde horiei.

3.3 KIROL ERAKUNDEAK

Partida edo lehiaketa batean inplikaturako edozein kirol erakunde txosten bat bidali ahal izango die dagokion federazioari eta Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari, lehiaketan gertatutako edozein gorabeheraren berri emateko, azter dezaten eta egoki diren jarduerak egin ditzaten.

Beren partida edo lehiaketetako batean gorabeheraren baten berri izan duten kirol erakundeek:



- Beren adingabeak babesteko ordezkariari bidali beharko dizkiete gorabeherak.
- Gertatutakoa ikertu edo aztertu beharko dute, eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten prestakuntza, erreparazio eta/edo zuzenketa neurriak hartu, beste gorabeherarik gerta ez dadin.
- Inplikaturako beste erakundeetako arduradunekin harremanetan jarri ahal izango dira, ikuspegi eraikitzaile batetik, informazio guztia izan dezaten eta, horrela, gorabehera ahalik eta modurik egokienean kudea dezaten.

4. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK

4.1 FAMILIEN ORDEZKARIA

Taldeek partida edo lehiaketan aktan inskribatu ahal izango dute familien ordezkari bat, hark nahi izanez gero. Horretarako gaitutako eskola lizentzia izan behar du. Haren eginkizun nagusiak izango dira taldearen jokabide ona zaintzea eta, bereziki, bere taldeko senide eta ikusleena, eta lehiaketako epaileari laguntzea protokoloa bete dadin.

Partidak irauten duen bitartean, irisgarri eta ageriko lekuan egon beharko du, epaileak ondo ikusteko moduan, eta Arabako Foru Aldundiak emandako identifikazio besokoa izango du, lehiaketan parte hartzen duten gainerako agenteek eta ikusleek identifika dezaten.

Familien ordezkariak egonez gero, jarduera protokoloan entrenatzaileari esleitutako eginkizunak bete ahal izango ditu (gomendagarria). Horrela, protesten edo gorabeheren aurrean, epaileak ohartarazpenari buruzko informazioa entrenatzaileari edo familien ordezkariari zuzenean helaraztea aukeratu ahal izango du. Bi figura horietako edozeinek egin ahal izango die jokabidea aldatzeko ohartarazpena gorabeheren egileei.

4.2 LIZENTZIA DUTEN PARTE HARTZAILEEN ARTEKO GORABEHERAK

Protokolo hau ikusleak tartean diren gertakarietan soilik aplikatuko da.

Kirolarien, teknikarien edo eskola lizentzia duten eta lehiaketan parte hartzen duten beste pertsona batzuen arteko gorabehera edo errespetu faltaren bat gertatuz gero, edo haiek epaile taldeari halakorik eginez gero, epaileak berak ezarri beharko ditu modalitateko joko edo lehiaketa arauetan jasotako faltak/zehapenak. Hori guztia, Diziiplina edo Lehiaketa Batzordeak gerora ezar ditzakeen zehapenak alde batera utzi gabe.

4.3 PROTOKOLOA BETETZEA

Kirol erakundeek protokoloa betetzea eta kirol legea eta errespetua sustatzeko ekintzak egitea positiboki baloratuko dira, eskola kirolerako dirulaguntza % 30eraino handituz.

Bestalde, protokoloan ezarritako jarduerak ez betetzeak dagozkion diziiplina edo administrazio erantzukizunak edo erantzukizun ekonomikoak (dirulaguntzak) ekar ditzake.